


Otsoa dator!



ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA



PAULA ESTÉVEZ

Gizakiak istorio kontatzaileak gara, hainbeste, ezen esan ere egin daitekeen narrazio gaitasuna dela gizaki egiten gaituen ezaugarrietako bat. Kontakizunak behar beharrezkoak zaizkigu geure burua eta errealtatea eraikitzeko, eta bereziki aipatzekoa da ipuin klasikoek horretan duten funtzioa –edo kultura partikular bakoitzak dituen istorio partikular baina atemporal horiena–. Barne-garapena sustatzeko eta bizitzaren eremu sakon eta batzuetan ilun samarrek argitzatzeko daukaten potentziagatik, eta bizitzaren une erabakigarriak zein diren ikasteko dakarkiguten jakintza praktikoagatik.

Ipuinen protagonisten eskutik asko ikasten dugu gure bilaketa, gatazka eta irtenbide existentzialei buruz, ahalegin berezirik gabe senti dezakegulako geure burua istorioetan islatuta. Ipuinen sustantzia bizitza bera da, irudi simboliko eta arketipiko hutsez irudikatua; hainbeste, non balirudike ipuinak gizateriak asmatutako tresnak direla, bizitzaren etapa bakoitzean izateak dakartzan zailtasunetan lagun egiteko funtzioarekin. Ipuinek geure emozioak, sufrimendua eta garapena tratatzen dituzte, zintzotasunez (nahiz eta ba-

tzuetan bortitzak iruditu) eta sentikor-tasunez.

Normalean haurrendako izan ohi dira ipuinak, nahiz eta batzuetan zailantza ere egiten dugun, hain dira batzuetan sexistak, politikoki ez zuzenak, moralistak, arrosak, edo bortitzak. Edukiaren aldetik hobeki egokitzeko borondatearekin moldaketak jasan izan dituzte, azkenaldian bereziki, baina ni ipuinon eskeleto askotan gordina errespetatzearen aldekoa naiz, hor gordetzen baita hurren garapenean eragiteko ipuinek duten gaitasunaren muina.

Ipuin klasiko hauetan otsoarena da niretzat pertsonaia kuttuna, hainbeste istorioren (ko)protagonista eta erdigune. Otsoaren sinbologia oso konplexua eta sakona da, eta oso zabala, horregatik, daukan esanahiaren interpretazioa. Normalean ematen diogun gaitztoaren paperean gelditzea oso irakurketa sinplista da, irudi horretatik areago, oso dimentsio positiboetan ere ulertu daitekeelako otsoaren papera.

Hiru txerrixoen ipuinean, adibidez, otsoa da putz eginez lehen bi etxetxoak apurtzen dituen, bai, egia da. Baina iritsiko ote ziratekeen txerrixoak etxe sendoa eraikitzen otsoak hori egin ez balu? Otsoak, bestela erdietsiko ez zu-

keten garapen maila handiago batera bultzatzen ditu txerrixoak, garapenearen metafora ederra eskainita, bizitzan aurrera egin ahala eraikinek (eta harremanek) eduki beharreko sendotasun handiagoaren beharraz, eta kokaleku existentzial zaharrak atzean uzteak sortzen duen minaz eta beldurraz.

Txanogorritxoren ipuinak autonomiaren bilaketa irudikatzen du, protagonistak amaren aholkuei ez entzuenarena egiten dienean, edo amonaren suntsipenaren irudian. Otsoa, hemen, identitate-aldaketaren prozesuko arrisku, galera eta mamuen irudia da, horretan ere barne eraldaketaren aliatu.

Otsoa ezinbestean da anbibalentea. Gogorra baita bizitzan otsoa agertu zitzaiguneko garaia igarotzea, jakina, baina askatuko ote ginen jadanik emankorra ez zitzaigun harreman horretatik, edo kateatuta gintuen dena delako leialtasunetik otsoak une horretan jan ez bagintu? Libertatea ezin da lortu basoan liliak bilduz denbora-pasa atsegin hutsean, Txanogorritxok irudikatatu zuen bezala, norbera izatera iristea otsoaren eskutik baizik eskuratu ezin den altxor preziatua delako. Otsoa, zenbat eta beldurgarriago, orduan eta beharrezkoago. Ez ahantz. ●